# Errepertorioaren Azterketa eta Praktika III

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:**

- Hautatutako estiloaren araberako dantzaren eboluzioa historian zehar markatu duten lanen ikasketa praktikoa, eta horien koreografia-kontzeptuak.
- Errepertorioaren ezagutzan sakontzea hautatutako lanen azterketa praktikoaren, bisualaren eta teorikoaren bidez, eta testuinguruan jartzea ikuspegi historiko, artistiko, kultural eta sozial batetik.
- Lan koreografikoa osatzen duten elementuen azterketa (espazioa, denbora, estiloa, estetika, musika, teknika, osaera, eszenografia...).
- Lan bat osatzen duten hizkuntza eta diziplina artistikoak ezagutzea (bideoa, testua, argia, musika, eszenografia, etab.).
- Dantzarekin lotutako adierazpen artistikoen ikasketa osoa (testuinguru historikoa, soziala, antropologikoa, artistikoa, filosofikoa, estetikoa…).

**Oharrak:** Errepertorioaren azterketa eta praktika, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**

- Dantzako lanak, izan errepertoriokoak nahiz berriak, aztertu eta baloratzeko gogoeta- eta kritika-gaitasuna garatzea, aldi ezberdinak aintzat hartuz, eta, besteak beste, alderdi historikoak, artistikoak eta sozialak barne hartzen dituen ikuspegi batetik.
- Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
- Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
- Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritikoa eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak izatea eta bateratzea.
- Gai izatea aztertu eta baloratzeko dantzak testuinguru kultural ezberdinetan izan duen garapen eta eboluzio historikoa, soziala eta artistikoa.
- Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea, eta taldeko edo solista funtzioak norbere egitea.

- Dantzaren irakaskuntzako mugimenduak, joerak eta eskolak ezagutzea, baita dantza-estiloen garapen historikoa eta gaur egunera arte izan duen eboluzioa ere.
- Gertaera eszenikoarekin loturiko egungo korronteak ezagutzea.